

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko urriaren 23tik 27rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZren AKTAK



Datuaren analisisia

Azken bileraren ondoren, EBZk tasei gaur egungo mailetan eustea erabaki zuen: erreferentzia-tasa % 0an, gordailatze-tasa $-\% 0,4$ an eta kreditu-erraztasunarena % 0,25ean. Aktiboak erosteko programari dagokionez, urtea amaitu arte hilean 60 bilioitan mantenduko dela iragarri zuen, eta hurrengo 9 hiletan 30 bilioira murriztuko dela. Arreta guztia bereganatu zuen berrinbertsioari dagokionez, bestalde, mugaeguneratu ahala, programa honen barruan eskuratutako baloreen printzipala berrinbertituko duela iragarri zuen, epe luze batez aktiboen erosketari garbieraren ondoren, eta, edozein kasutan, beharrezkoa den bitartean.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuen ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa

Datuaren analisia

Frantzia, Alemania eta Euroguneko PMlen urriko atariko datuak argitaratu ziren. Frantzian hobera egin zuten hala Zerbitzuen PMIak nola Manufakturenak, eta, horrenbestez, konposatua 57,5era igo zen, aurreko 57,1aren eta esperotako 57aren gainera. Alemanian, aldiz, biek egin zuten behera, Manufakturenak hamarren bat, 60,5eraino, eta zerbitzuenak 55,2raino. Hortaz, konposatuak 56,9raino egin zuen atzera, aurreko 57,7tik, 57,5 espero zen bitartean. Azkenik, Euroguneko metatuan, manufakturen indizea 58,6raino igo zen, Zerbitzuen indizea 54,9ra murriztu zen bitartean. Horrenbestez, konposatua 55,9raino jaitsi zen.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

Datuaren analisisia

2017ko hirugarren hiruhilekoan BPGd-ak urte arteko % 3 egin zuen gora, aurreikuspenek zehazten zuten % 2,6aren eta bigarren hiruhilekoko % 3,1aren aurrean. Ekoizpenaren hazkunde honen atzean honako aldagai hauen ekarpen positiboak daude: kontsumoko gastu pertsonala (+% 1,62), inbentario pribatuak (+% 0,73), kanpo-sektorea (+% 0,41) eta ekipoen inbertsioa (+% 0,25).

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus pena
10/30	Japonia	Hileko xehekako salmentak	% 0.8
10/30	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 3.0
10/30	Espainia	Urte arteko BPGd	% 3.1
10/30	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1.6
10/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	113.3
10/30	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.0
10/30	Estatu Batuak	YoY PCE zentrala	% 1.3
10/30	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.7
10/30	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	21.0
10/31	Japonia	Langabezia	% 2.8
10/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 2.0
10/31	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-10
10/31	Txina	Fabrikazioaren PMIa	52.0
10/31	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	--
10/31	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 2.1
10/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.0
10/31	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 9.0
10/31	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 2.4
10/31	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1.5
10/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufaktura indizea	60.0
10/31	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	121.2
11/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
11/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	51.0
11/01	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
11/01	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	200k
11/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	59.4
11/02	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	43.6
11/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	54.8
11/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	56.7
11/02	Alemania	Langabeziaren aldaketa (000s)	-10k
11/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	60.5
11/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	58.6
11/02	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.500
11/02	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	235k
11/03	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
11/03	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	53.8
11/03	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4.2
11/03	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$43.2b
11/03	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	58.5
11/03	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera batez ere positiboak aste honetan. Europan, enpresen emaitza positiboan argitalpenarengatik batetik, eta osteguneko EBZren bilerarengatik bestetik, indizeek bultzada handia jaso zuten. Bilera horretan, erabaki hauek hartu ziren: tasetan aldaketarik ez egitea eta gaur egungo erosketa-erritmoa abendura arte bere horretan mantentzea eta beste bederatzi hilabetez erdira murriztea, beharrezkoa denean malgutasunez jokatzuz. Europan, alderdi negatiboa Kataluniako ezegonkortasun politikoaren eskutik etorri zen, lbexa pixka bat kaltetu zuena. Hasiera batean, hauteskunde aurreratuak egon zitezkeela zabaldu zenean, indizeak pixka bat gora egin zuen arren, albiste ezeztatutakoan maldan behera joan zen berriro. Azkenik, Kataluniako Gobernuak DUIa gauzatu eta Estatuak 155. artikulua aplikatu zuen, Katalunian abenduaren 21erako hauteskundeetara deitzearekin batera. AEBetan, enpresen emaitza onen argitalpenari esker, itxierak positiboak izan ziren. Asian astea oso positiboa izan zen, eta Nikkeiak gorakada handiak izan zituen, Abek hauteskundeak irabazi ondoren, eta baita Japoniako enpresen emaitza korporatibo sendoen ondorioz ere. Azkenik, Gorakorretan astea oso positiboa izan zen.

ERRENTA FINKOA:

Europako errentagarritasunek behera egin zuten. Ostegunetik aurrera, EBZren bileraren eta Draghiren mezu arinagoaren ondoren, zor alemaniarraren mugimendurik garrantzitsuena gertatu zen, bere 10 urterako tasa -7op behera egin zuenean. Zor espainiarrak ere -8op egin zuen atzera aste osoan, baina Kataluniako gertakariak eragin handiegia izan zuten: osteguneko hauteskundeak deitzeko aukeraren aurrean behera egin zuen zorrak, baina berriro gora egin zuen ostiralean. AEBetan, aldaketak ez ziren nabarmenak izan. Kredituak hobera egin zuen, eta bere diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroak balioa galdu zuen bere truke nagusietan. Draghiren mezuak ondorio zuzenak izan zituen txanpon bakarrean, eta EBZren bileraren ondoren, balio handia galdu zuen. Liberaren balio handitzea ere nabarmendu zen, Erresuma Batuan BPGd-aren datu onak ezagutzera eman ondoren. Bestalde, petrolioaren prezioak gorakada nabarmena izan zuen, ekoizpena doitzeko akordioak zabaldu eta inbentarioak murrizteko prestasuna agertzeko Saudi Arabiak egin zituen adierazpenen ondoren. Urrearen balioak apur bat behera egin zuen.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.